

# 2024ko NEGOZIAKETAREN EBALUAZIOA



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## AURKIBIDEA

---

|   |    |
|---|----|
| Sarrera .....                                 | 4  |
| Datu Orokorrak .....                          | 5  |
| Sektoreetako ebaluazioa .....                 | 7  |
| Lantokietako ebaluazioa .....                 | 15 |
| Ondorio Orokorrak .....                       | 18 |
| Eranskina: Sektore hitzarmenen zerrenda ..... | 20 |

**541.600**  
**LANGILE PREKARIO**  
**BAINO GEHIAGO GARA**

## 0. SARRERA

2023ko dinamikari jarraituz, are hitzarmen gehiago eguneratu ditugu 2024 urtean zehar. 2013tik hona hitzarmenen aplikazio maila handiena lortu dugu eta 500.000 langilek baino gehiagok bukatu dute 2025 urtea beren hitzarmena eguneratuta.


Eguneraketa maila hau, gainera, Estatuko beste lurraldeetako hitzarmenak baino hitzarmen hobek sinatuta gauzatu dugu. Estatuan eztabaidatzen ez diren gaiak hemengo negoziazio kolektiboan eztabaidagai daude, hala nola: prekarietatea, hitzarmenen aplikazioa edo lanaldi murrizketa. ELAren ekarpen nagusia ezberdintasun hori Euskal Herrira ekartzean datza, eta horretarako gatazkarako gaitasuna izatean.

Hala ere, inflazioak behera egin ahala, soldatetan inguruko lurraldeekin sortzen genuen diferentzia txikitu egin da. Aurreko urteetako ondorio bat gogora ekarri behar dugu, inflazio txikiko garaietan gutxieneko soldata igoera finko bat ezarri ezean, soldata igoera oso xumeak ontzat ematen ditugu eta inflazio txikiko garaiak dira, hain zuzen, soldata igoera gehigarrien bidez kapitalaren aberastasun metaketa eztabaidatzeko une egokienak.

Txosten honek gertatutakoaren berri ematen du eta, bereziki, urte honetan ikasitakoa mahai-gaineratu nahi du, ondo egindakoa erreproduzitzeko eta gaizki egindakoa zuzentzeko.


# 1. DATU OROKORRAK

1. 2024an ELAk sinatutako hitzarmenek 54.095 langileri eragin diete, horietatik 22.433 emakumeak izan ziren. Iaz, berriz, 159.346 langileri eman zion estaldura gure sindikatuak, horietatik 58.893 emakumeak izan ziren. Kontuan izan behar dugu aurreko hiru urteetan sinatutako hitzarmen gehienek indarrean dirautela eta, ondorioz, 2024 urtean hitzarmena berritzeke zuten langileak askoz gutxiago zirela.
2. Hala ere, ELAk sinatutako hitzarmen kopurua hazi egin da 2023 urtearekin alderatuz. Enpresa hitzarmen asko eguneratu ditugu, dena 225. Sinatutako hitzarmen kopurua handiagoa izan arren, hauek langile gutxiagori eragin diete, orokorrean enpresa txikiagoetan lortu baititugu akordioak. 2023ko datuekin konparatuta hau da kualitatiboki ezberdintasun nagusia.
3. Era berean, iazko sektoreko hitzarmen kopuru bera sinatu dugu, 15 hitzarmen hain zuzen ere. Baina, kasu honetan ere, sektore txikiagoak izan dira. 2023an sektore maskulinizatueto hitzarmen handienak eguneratu ziren, aurtan txikiagoak izan dira eta neurri handi batean feminizatutakoak.



4. Oro har, sindikatu eta patronal guztiek sinatutako hitzarmenen ondorioz ia 100.000 langileren lan baldintzak eguneratu ziren 2024an. 2023an 300.000 langileren lan hitzarmen eguneratu ziren eta horiek indarrean diraute 2024an, horregatik da 2024ko langile kopurua hiru aldiz txikiagoa. Ondorioz, urretik esan bezala, 2013tik hona eguneratutako hitzarmen kopuru handiena erdietsi dugu.

- Oraindik ere azaroko eta abenduko datu ofizialak falta direla 532.500 langilek dituzte beren hitzarmenak eguneratuta Hego Euskal Herrian. LHKren arabera 436.600 langile dira EAEn (255.900 gizon eta 180.700 emakume) eta Lan Ministerioaren arabera 95.933 Nafarroan (ez dago generoaren arabera datua banatzerik). 2012ko lan erreformaren ondoren hainbat hitzarmenek beren indarraldia galdu zuten 2013an, orduan 274.988 langilek izan zuten hitzarmena indarrean urtea amaitzean. Hau da, 2024 urtea amaitu da azken hamarkadako hitzarmen eguneratu kopuru handienarekin, orduko langileen estaldura %193 handituta.
- Negoiazio kolektiboaren pizkunde hau ez dago ulertzerik 2022an eta 2023an izan den greben hazkunderik gabe. 2024an greba kopurua txikiagoa izan da hitzarmen asko indarrean zeudelako. Azken 20 urteetan greba kopuruaren eta hitzarmenen eguneratzearen arteko harreman zuzena izan da, eta 2022a azken bi hamarraldietako urterik gatazkatuena izateak ekarri du 2024an horrenbeste hitzarmen berrituta izatea.



**GREBAK ETA HITZARMENEN ESTALDURA**

- Oraindik ere hitzarmenen eguneraketan arrakala nabarmena dago gizon eta emakumeen artean, 2024an eguneratutako sektoreko hitzarmenetan emakumeak gehiago ziren arren (ondoren sakonduko dugu). Lan Harremanen Kontseiluaren arabera gizonezkoen %70ek beren hitzarmena indarrean dute, emakumeen artean datu hau %59,90ekoa da. Hainbat sektore feminizatueta hitzarmenak eguneratzea falta da, eta hitzarmenik ez duten langileen artean gehiengo nabarmena emakumeak dira (etxeko langileak eta klinika txikietan lan egiten duten pertsonak).
- Genero arrakala orokorra egon arren, ELA izan da hitzarmenak eguneratzerakoan emakume proportzio handiena babestu duen sindikatua, ondoren aztertuko dugun moduan.
- Guztira 36 hitzarmen sektorial sinatu dira HEHan (bukaeran zerrendatuta azaltzen dira); ELAk horietako 15 sinatu ditu eta, era berean, ELAk lantokiko edo enpresako beste 225 akordio sinatu ditu.

10. Hitzarmena eguneratu gabe daukan esparru nagusia administrazio publikoa da; 180.000 langile daude EAEn eta Nafarroan beren lan baldintzak azken 15 urteetan adostu gabe. Administrazioak dira patronalik autoritarioenak, besteak beste dekretu bidez lan baldintzak indarrez inposatzeko legezko aukera dutelako eta aukera hori sistematikoki baliatzen dutelako. Hala ere, 2023an, 2010etik hona lehen aldiz, EAJk eta PSOEk Espainiako Gobernua osatzeko akordioan atea ireki zuten Espainiako aurrekontuetatik kanpo Hego Euskal Herrian soldata igoera propioak eta enplegu politika propioa izan dadin. Akordio hau 2024 urtean zehar ez da gauzatu eta agenda politikoan ez du lehentasunik izan.
11. Pradalesen gobernua aurrekoa bezain autoritarioa izaten ari da. Argi dugu, aurreko gobernuarekin bezala, aldaketak soilik izango direla posible mobilizazio eta greba dinamika sostengatuak lortzen baditugu. Autoritarismo honen erakusle, ELAk demanda bat ezarri behar izan du gobernuaren aurka sindikatuon oinarritzko eskubideak urratzen ari delako, negoziatzeko aukerarik ere eman gabe aurrekontuak onartu dituzte eta.

## 2. SEKTOREETAKO EBALUAZIOA

### 2.1. Sinatutako hitzarmenak

|             | HITZARMEN KOPURUA | LANGILE KOPURUA | EMAKUME PROPORZIOA |
|-------------|-------------------|-----------------|--------------------|
| ARABA       | 7                 | 7951            | %39,95             |
| BIZKAIA     | 8                 | 13451           | %65,03             |
| GIPUZKOA    | 10                | 20815           | %51,98             |
| AUTONOMIKOA | 2                 | 4370            | %62,33             |
| GUZTIRA EAE | 27                | 46587           | %54,67             |
| NAFARROA    | 9                 | 14100           | %64,00             |
| HEH         | 36                | 60687           | %56,84             |


1. Iaz 39 hitzarmen adostu ziren 240.810 langilerentzat, horietatik 82.261 emakumeak. Aurretik esan bezala, nabarmen langile gutxiagori eragingo diote aurten sinatutako hitzarmenek, 60.687 langileri hain zuzen. Hori bai, iaz sinatutako hitzarmenetan ari ziren langileen %34,16 soilik izan ziren emakumeak, eta aurten %56,84. Aldaketa hau normala da kontuan izanik maskulinizatutako sektore handienetan hitzarmenak indarrean izan zirela 2024 urtea hasi genuenean.

2. Aurretik esan bezala, gizon eta emakumeen artean 10 puntuko arrakala dago hitzarmenen estaldura osoa kontuan izanik.

|      | HITZARMEN KOPURUA | LANGILE KOPURUA | EMAKUME PROPORZIOA |
|------|-------------------|-----------------|--------------------|
| ELA  | 15                | 27731           | %55,03             |
| LAB  | 15                | 28207           | %58,38             |
| CCOO | 27                | 47250           | %55,00             |
| UGT  | 21                | 36131           | %45,21             |

3. Sindikatu guztiok nabarmen handitu dugu emakumeei eragiten dieten hitzarmenen proportzioa. Iaz ELAk beste sindikatuek baino estaldura handiagoa bermatzen zien emakumeei, 6 eta 10 puntu arteko diferentziarekin. Aurten LABek eragin handiagoa izan du emakumeengan (bereziki ELAk ez dituelako ontzat eman Osakidetzako garbikuntzako eta Bizkaiko Esku-hartze sozialeko hitzarmenak). UGTren kasuan, sindikatu bakarra izan da 2024 urtean gizonetako gehiagoren hitzarmenak eguneratu dituen emakumeenak baino.
4. Iaz 39 hitzarmen sektorial sinatu ziren eta aurten 36. Oso antzeko kopuruak diren arren, aurten askoz langile gutxiagori eragin diete sinatutako hitzarmenak. Oraindik sinatzeke geratzen diren hitzarmen asko eta asko langile kopuru txikia dutenak dira, bereziki, feminizatutakoak eta langileak lantoki txikitako oso sakabanatuta dauzkatenak, hots, antolatzen zailagoak direnak.
5. Hirugarren urtez jarraian ELAk sektore hitzarmen kopuru esanguratsu bat sinatu du. Azken bi urteetan, urte bakoitzean 15 hitzarmen sinatu ditu ELAk. Greba gaitasunak, sektore eta enpresa hitzarmenen negoziaketan konbinazioak eta ELAk gehiago nabarmenak eduki izanak patronalak mugiarazi ditu, eta aurretik mahaigaineratzen ez zituzten proposamenak luzatzen ari zaizkigu. Ondoren ikusiko dugun bezala, ELAk sinatutako hitzarmenak besteak baino nabarmen hobeak dira orohar. Esan dezakegu hamarkada batez, 2012tik aurrera, sindikatuak izandako jarrera irmoak eta ondorengo gatazkarako gaitasunak ekarri dituela eduki hobe horiek.
6. CCOOk eta UGTk sinatu zitzaizketen ia hitzarmen guztiak sinatu dituzte berriro ere. EAEn sinatu dituzten hitzarmenak bakarrik aztertuta, ELArenkin batera eta ELAk eragindako presioarengatik soilik lortzen dituzte lan-baldintza hobekuntza txukunak. Eta soilik beren esku geratzen diren negoziaketetan soldata igoera txikiagoak dira, lanaldi luzeagoak eta langileak prekarizateko neurriak adosten dituzte arazo larregirik gabe.
7. Hobekuntzak izan arren, emakumeen hitzarmenen estaldura baxuagoak kezkatu behar gaitu, batetik hitzarmenak atzeratzen zaizkigulako, horrek ondoren hitzarmenak eduki egokiekin eguneratzeko dakartzan zailtasunekin, eta, bestetik, inongo hitzarmenik gabe dauden bi langile kolektibo nagusiak (etxeko langileak eta klinika txikitako langileak) emakumeak nagusi diren sektoreetakoak direlako. Sektore horien dinamizazio eta grebarako gaitasuna landu behar ditugu.






8. Federazioka azterketa eginda aldaketa nabarmena dago 2023arekiko. Orduan Industria izan zen hitzarmen estaldura handiena eragin zuen federazioa. Aurten Zerbitzuak itxi dugu hitzarmen gehien eta langile kopuru handienari ere eragin diete hitzarmen horiek. Sinatutako 36 hitzarmenetatik 7 industria alorrekoak izan dira, 4 Gizalanekoak (3 sektore soziosanitarioetakoak) eta beste 25 zerbitzu pribatuetakoak.
9. 2024an berriro ere urte luzez atzeratutako hitzarmen batzuk eguneratzea lortu dugu: Gipuzkoako metalaren merkataritza edo garbikuntza, edo Bizkaiko zapatagintzaren eta larrugintzaren merkataritza, esaterako. Urte luzez sinatu gabeko hitzarmenak eduki egokiekin eguneratzea zaila gertatu ohi da, patronalak urte horietako soldaten izozketa txantaia moduan erabiltzen baitu eta, hala ere, negoziaketa horiek amaitzea lortu dugu.
10. Azpimarratzekoa da 2024an bi hitzarmen berri sortu ditugula, Batetik, Gipuzkoako sorosleen lehen hitzarmena; sektore txikia eta prekariora da, urtean zehar oso hilabete gutxitan lan egiten dutena eta, hala ere, hitzarmen bat lortzeko gai izan gara. Era berean, Arabako esku-hartze sozialeko hitzarmena itxi ondoren (greba tarteko), antzeko parametroetan ez-gaitasuna duten pertsonak artatzeko zentroen lehen hitzarmena sinatzea lortu genuen, 35 orduko lanaldiarekin eta esku-hartze sozialeko pareko soldatekin. Prekarietateari aurre egiteko apustua horrelako adibideekin gorpuzten da, soilik ELAK gehiengo nabarmenak dituen esparruetan gertatzen dira horrelako akordioak.
11. Oraindik eguneratu ez diren eta tamaina handiko hitzarmenen artean Bizkaiko zein Gipuzkoako bulegoen hitzarmena edo Bizkaiko eta Arabako Ostalaritza aipatu behar ditugu. Horietan lantoki txikiz eratutako sektore bat modu irmoan mobilizatzeko zailtasunak azaltzen dira, edo bulegoen kasuan telelanaren ondorioz langileen arteko harremana zaildu izana. Era berean, tamaina txikiagoa izanik, deigarria da Arabako edo Nafarroako adinekoen egoitzen hitzarmenak eguneratzerik ez izatea eta Arabako Aldundiak zein Nafarroako Gobernuak langile horiek estatuko lan-baldintzak inposatzen jarraitzea. Azkenik, Nafarroako

ehungintzaren merkataritza ere aipatu beharra dago, patronal izaera duten elkarteak desagertu egin direlako eta negoziaketa bera abian jartzeko zailtasun handiak ditugulako.


12. Azkenik, 2024ko balantzean Gizarte Ekimeneko ikastetxeen EAeko hitzarmena jaso izana gustatuko litzaiguke, patronalarekin uda aurretik greba amaierako akordioa sinatu genuelako. Akordio hartan KPIa bermatzen zuten soldatak adostu genituen, klase orduen edo bestelako lanaldien murrizketa eta lan-kargak murrizteko neurriekin batera, besteak beste. Patronalak uko egin dio orain arte adostutako eduki horiek hitzarmenetan jasotzeari, eta epaitegietan akordioa inposatu dezakegun arren greba amaierako akordioak erabateko balio juridikoa duelako (soldaten kontuarekin jadanik EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia dugu), oraindik ezin izan da akordioa berretsi beren 11.600 langileentzat.

## 2.2. Soldata igoera

1. ELAk sinatu dituen sektoreko hitzarmenetan batz besteko soldata igoera %3,75ekoa izan zen 2024 urterako. Emakumeen batz-besteko soldata igoera, berriz, %3,89koa izan zen. Aurten ere ELAk sinatutako batz-besteko soldata igoerak beste sindikatuek sinatutakoak baino altuagoak izan dira, ELAk sinatu ez dituen hitzarmenetan soldata igoera batz beste 0,3 puntu baxuagoa izan da, emakumeen kasuan 0,25 puntu baxuagoa.
2. Diferentzia hau altuagoa izan zen 2022 eta 2023 urteetan. ELaren negoziazio kolektibo ereduaren soldatak KPIaren gainetik igotzea eta aurreko urteko KPIaren erreferentzia erabiltzea oinarrizkoa da. Ondorioz, inflazio altuko testuinguruetan langileen eros-ahalmena egokiago defendatzen dugu, baina inflazioa murriztu den heinean sindikatuen arteko diferentzia, era berean, murriztu egiten da. Etorkizunari begira adi egon behar dugu, inflazioa are gehiago murrizten baldin bada KPIarekin lotutako igoerez gain gutxieneko igoera finko bat bermatu behar dugu soldata igoera onenak lortzen jarraitu nahi badugu.



3. ELAk jarraitzen du sektore feminizatueta soldata igoera hobeak lortzen eta, era honetan, soldata arrakalaren aurka jarduten. Hala ere, 2023an emakumeen igoera gehigarria handiagoa izan zen, 1,34 puntu hain zuzen. Eta, kasu honetan ere, aurreko urteekin konparatuta beste sindikatuekiko desberdintasuna murriztu egin da. Arrakala murrizten aritza positiboa da, baina diferentzia horren murrizta baldin bada gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasunarekin amaitzeko urte gehiegi beharko ditugu eta bitarte horretan egungo injustizia egoera erreproduzitu egingo da.
4. Aurretik esandakoan sakonduz, ELAk sinatutako hitzarmenen %86an KPIa erabat bermatuta egon da. KPIa bermatu ez den sektoreetan urteroko igoera finko altuak adostu ditugu eta, ondorioz, KPIa %2 eta %3 artekoa den bitartean KPItik dexente gorako igoerak izango direla aurreikusi dezakegu. ELAk sinatutako hitzarmen guztietan hileko 1.400 euroko soldata bermatu dugu eta hiru hitzarmenetan soldata arrakalari aurre egiteko neurriak hartu ditugu. Soldata arrakalaren aurkako neurriak soilik hartu dira ELAren bultzada zuzena egon den sektoreetan.




**SOLDATEKIN LOTUTA NEURRI GEHIGARRIAK**

5. Beste sindikatuek sinatutakoetan datu horiek narbamen txikiagoak izan dira. ELAk hitzarmenak sinatu ez dituenen KPIaren bermea soilik hitzarmenen %42,85ean lortu dute beste sindikatuek.
6. Hori bai, gutxieneko soldataren negoziaketei begira, azpimarratu behar da beste sindikatuek sinatu dituzten hitzarmenetan ere, kasuen %80an hileko 1.400 euroko soldata edo urteko 19.600 eurokoa bermatu egin dela. Horrek esan nahi du modu nahiko orokortuan patronalarentzat ere hileko 1.400 euroko soldata gutxieneko gisa jadanik gainditutako muga dela (langileen mobilizazioek bultzatuta, noski).


### 2.3. Bestelako edukiak

1. Soldata igoerarekin bezala, hitzarmenen negoziaketan oso garrantzitsuak diren beste edukiak aztertzerakoan ondorio bertsua atera dezakegu: ELAk sinatzen dituen hitzarmenetan eduki hobekak lortzen dira, kasu honetan soldatekin baino are diferentzia handiagoarekin.
2. ELAk sinatutako hitzarmen guztietan 2012ko lan erreformak enpresariei alde bakarrez hitzarmenak ez aplikatzeko ematen zaizkien tresnak bertan behera geratu dira. ELAk sinatu ez dituen hitzarmenetan berme hori %45ekoa izan da soilik. Beste sindikatuen kasuan ere aurreko urteetan baino kopuru altuagoa izan da aurtengoa. Batetik, jadanik hainbat hitzarmenek gure inplikazio klausula daukatelako aurretik gurekin adostuak izan zirelako. Eta, bestetik, gai hau modu estrukturalan patronalari irabazi diogun eztabaida da eta orain urte batzuk ezarrita zuen betoa neurri handi batean jadanik gaintutua izan da, salbuespenak salbuespen. ELArentzat elementu hau ezinbestekoa da ez duelako ontzat ematen azken lan erreformek enpresariei emandako boterea eta hitzarmen bat sinatzeko beronen aplikazioa ezinbesteko elementua delako.



3. Lanaldiaren murrizketan, 2023an hasitako bidetik sakondu dugu. ELAk sinatutako hitzarmen sektorialen %57an lanaldi murrizketak izan dira, baina beste sindikatuek sinatzerakoan ere kasuen %47an lanaldi murrizketak izan dira. Are, hainbat hitzarmenetan 35 orduak erdietsi dira (Bizkaiko kirol kudeaketan, Bizkaiko esku-hartze sozialean, Araban ez-gaitasuna duten pertsonen artapenean edo EAeko anbulantzietan). Bizkaiko bi hitzarmenak ELAk ez zituen sinatu gure militantzia greba gehiagorako prest zegoelako are eduki hobeen alde, baina ELAk deituriko grebarik gabe ez zen halako hobekuntzarik posible izango.

4. Bestalde, ELA prekaritatearen aurkako kanpaina betean ari da eta ezinbesteko bilakatu nahi du bere hitzarmenetan gutxieneko soldata 1.400 eurotik gorakoa izatea, borondatezkoa ez den lanaldi partziala murrizteko neurriak jasotzea, behin-behinekotasuna bere forma guztietan desagertzea eta lan osasuna bermatzeko aldarrikapenei erantzuna ematea. Bada, ELAk sinatutako 15 hitzarmenetatik 11tan horrelako neurriak jaso dira. ELAk sinatu ez dituenetan soilik 3 kasutan hartu dira halako neurriak. Honek erakusten du ELAk prekarietateari aurre egiteko apustuak negoziaketa sekorialetan eragin nabarmena izan duela eta sindikalismoa ulertzeko molde ezberdin bat ezarri duela beste sindikatuekiko.
5. Aurrekoekin batera, ultraaktibitate mugagabea lortzea modu orokorrean gaindituta dagoen beste eztabaida bat da. Hala ere, Bizkaiko patronala erakusten ari da besteekiko jarrera itxiagoa, bai gai honetan zein beste batzuetan. Patronal hau bilakatzen ari da langileen lan baldintzen prekarizazioan aitzindaria.




**ULTRAAKTIBITATE MUGAGABEA JASOTZEN DUTEN HITZARMENAK**

6. Azkenik, azpimarratzekoa da hainbat patronalek 2024 urtean martxan jarri duten ofentsiba aldizkako kontratuak lanaldi partzialaren bidez prekarizatzeko. Legearen arabera soilik sektoreko hitzarmen baten bidez baimendu daitezke halako kontratazioak. Berez prekariora den kontratu bat are prekarioago bilakatu nahi du patronalak. Baimen horrek zentzua izan dezake sektore zehatzen batean eta baldintza oso zehatzetan langabeziarako prestazioa jaso ahal izateko. Bestelako egoeretan ez du zentzurik. ELArentzat bereziki salagarria izan da beste sindikatuek patronalen proposamenei inongo arazorik eta mugarik gabe kontratu mota honi bide eman izana.

## 2.4. Gatazka sektorialak

- 2024an sinatu diren hitzarmen sektorialetan 13 greba izan dira, hau da, akordioak erdietsi aurretik sektoreen heren batean baino gehiagotan greba egin izana beharrezkoa izan da. Eta beste kasu batzuetan grebak ez dira egin, baina greba egiteko aukera mahai-gaineratu izana ezinbestekoa izan da patronalak sindikatuek eskatutako gutxienekoak onartzeko. Greba izan duten 13 sektoreetatik 12tan ELA lehen sindikatua zen nabarmen eta bestean, Nafarroako bulegoetan, langile talde batek zirikatuta deitu zuten greba beste sindikatuek ere. Hau da, ELArik gabe ez dago grebarik sektoreetan eta, ELAk hitzarmenak sinatu ez arren, ELAk bultzaturiko grebak ekarri dute patronala mugiaraztea eta beste sindikatuentzat nahikoak diren edukiak mahaigaineratzea. Sektoreetako negoziaketetan ere langileek beren lan baldintzen alde borrokatzeko asmoa baldin badute ELA da erreferente bakarra.




- Hainbat kasutan ELAko militanteak greba gehiago deitzeko prest ziren eta horregatik ez genuen hitzarmena sinatu, are baldintza hobeak lortu zitezkeelako patronalari presio eginez. Kasu horietan ere ELAren eraginkortasunak ekarri ditu edukiak negoziazio mahaietara eta beste sindikatuen jarrera bizkarroiak ekidin du garaipen hobeak lortu izana.
- 2024 urtean aipatu beharra dago, oraindik ere hitzarmenak adostuta ez dauden arren, Bizkaiko Arte Grafikoetan greba dinamika tinko bat piztu dela, EAEko sektore publikoan negoziaketarako eskubidea irabazteko greba berriak egin genituela, Nafarroako hezkuntza publikoan LABen betoa gaudituta grebak egin direla, Bizkaiko elikagaien banaketa sektorean grebak izan direla edo EAEko ehungintzaren merkataritza sektorean estatuko hitzarmena hemen aplikatu ez dadin greba indartsuak egin ditugula.

### 3. LANTOKIETAKO EBALUAZIOA

1. 2024an ELAk 596 negoziaketetan parte hartu du, 2023an baino 144 negoziaketa gutxiagotan. Ireki asmo genituen esparru berri batzuetan uko egin diogu azkenik negoziatzeari eta atzeratutako hainbat negoziaketetan hitzarmenak eguneratzea lortu dugu, ondorioz, 2023ko datuekin konparatuta negoziaketa kopurua modu garrantzitsuan murriztu dugu.


#### 3.1. Sinatutako akordioak

1. Negoziatu beharreko 596 hitzarmenetatik 225 sinatu ditu ELAk, 158 Industrian, 36 Zerbitzuak eta 31 Gizalanean. ELAk ordezkariak duen lantokietan, ELAren sinadurarik gabe beste sindikatuek beste 44 hitzarmen sinatu dituzte. Hau da, ELAk ordezkariak duen 269 lantokitan hitzarmena itxi dugu 2024 urtean zehar, negoziazioa zuten lantokien %45,13an hain zuzen. 2023an 171 enpresa hitzarmen adostu genituen, guztira negoziatu beharreko hitzarmenen %31 izan ziren horiek. Honek erakusten du aurtengo datuek negoziaketa eguneraketa bat ekarri dutela.




#### ELAK SINATUTAKO AKORDIOAK FEDERAZIOKA

2. Egoera kezkarriena, ondoren era azalduko dugun moduan, Gizalanean mantentzen dugu. Zerbitzuak eguneraketa kopurua kezkarria gerta daiteke, baina neurri handi batean esparru irekierak dira, lortu ezean bukatutzat ematen ditugunak. Gizalanean kasuan udaletxeetan hamarkada bateko atzerapenari buelta eman ezik gabiltza, momentu honetan egoera hori iraultzeko plangintza jadanik martxan dugun arren. Kontrako zentzuan, Industriako datu positiboa azpimarratu behar dugu, iaz negoziatu beharreko hitzarmenen %42 itxi zituzten eta aurtengo %65, eta honek eguneratutako hitzarmen kopurua asko hazi du.



**ITXITAKO AKORDIO PROPORZIOA FEDERAZIOKA**

- ELAk sinatu dituen hitzarmenek 26.364 langileri eman diote estaldura. Aipatzekoa da horietatik 12.296 langilerentzat negoziaketa on batetik atera nahiko genituzkeen eduki garrantzitsu guztiak irabazi dituztela (KPItik gorako soldata igoerak, aplikazio bermeak, prekarietateari aurre egiteko neurri eraginkor bat eta lanaldi murrizketa).



**AKORDIOEK BABESTUTAKO LANGILEAK**


- ELAk sinatu ez duen kasuetan 12.000 langileri eragin diete akordioek. Hau da, ELAk eragin handiagoa lortu du enpresa txikietako hitzarmenetan eta ez da gustora geratu enpresa handienetan egindako eskaintzekin.
- Era berean, ondoren sakonduko dugun bezala, gure eduki garrantzitsuenak bereziki Zerbitzuak eta Gizalaren bermatu ditugu behar bezala, eta zailtasun handiagoa izan dugu Industriako Federazioaren kasuan. Horren ondorioz, proportzioan emakume gehiagok erdietsi dute ELAk nahi dituen eduki guztiak dauzkan hitzarmen bat.



6. Hala ere, enpresa hitzarmen bidez itxitako akordioetan langileen bostetik bat besterik ez da izan emakumea. Enpresa hitzarmenak bereziki industria alorrean negoziatzen direla kontuan izanik hau naturala izan daiteke, baina oraindik ere sektoreko hitzarmen bidez emakume asko hitzarmen baten estaldurarik gabe dagoela kontuan izanik, enpresa dinamiken bidez ez gara gai izan horri buelta emateko.


### 3.3. Gatazkak lantokietan

1. Gure barne erregistroaren arabera lantokietan greba kopurua 2022ko kopuruetara eraman dugu berriro ere, erregistroak dauzkagunetik kopuru handienera hain zuzen. 2024 urtean 113 greba deitu genituen lantokietan.
2. Greben arrazoiek aldaketa txiki bat izan dute. Batetik, oso poztekoa da prekarietateari aurre egiteko grebak %400ean handitu izana. Eta kezkatzekoa da krisi egoerei aurre egitekoak ere hazi izana, nahiz oraindik ere askorik ez diren, eboluzioa kezagarria da eta 2025 urtea berri txarrekin hasi dugu (BSH edo Guardian kasu).



#### GREBAK ARRAZOIEN ARABERA

3. Krisi egoeretan oso kezkatzekoa izaten ari da beste sindikatuen jarrera. Enpresa multinazional handi batzuk legez 6 hilabeteko aurrerapenarekin behartuak izaten ari dira itxierak komunikatzera, bada beste sindikatuak azken egunera arte enpresen produkzioa normaltasunez mantentzearen alde jotzen ari dira, 6 hilabeteko epea itxieren aurka ekiteko edo, kasurik okerreanean, baldintza hobeetan langileak zaintzearen alde jo beharrean. ELAk bere baliabide guztiak eta borondate irmoa jartzen ditu langileen zerbitzura eta kaleratzeen aurka, eta langileek borrokarako prestutasuna mantentzen duten bitartean ez dio borrokatzeari uzten. Azken hilabeteetan beste sindikatu guztiekin kontrako esperientzia izaten ari gara, sindikatuak beraiek baitira langileak akordioak lortzera bultzatzen dituztenean kaleratzeak ontzat emanez.
4. Nabarmena da sindikatu batzuen eta besteen borrokarako tresnen ezberdintasuna, Greba Kutxa indartsu baten jabe edo gaitasun tekniko handiko talde baten jabe izatea, ala ez. ELAk tresna horiek ditu apustu politiko sendo bat egin duelako horretarako, eta beste sindikatuak ez dute horrelako tresnarik.



#### 4. ONDORIO OROKORRAK:

1. 2024 urtea 2023 urtearen jarraipena izan da langileen hitzarmen bidezko estaldurari begira. Beste 36 sektore hitzarmen sinatu dira eta ELAk 225 enpresa hitzarmen sinatu ditu. Lan Harremanen Kontseiluaren eta Lan Ministerioaren datuen arabera 532.500 langileren hitzarmenak daude eguneratuta, 2013tik kopuru handiena da hau, %193ko hazkundearekin. Hala ere, oraindik ere negoziaketaren parte handi batek blokeatuta jarraitzen du, bereziki sektore feminizatu batzuetan. Era berean, ELA kezkatuta dago hitzarmen kolektiboen inongo estaldurarik ez duten langileen kolektibo nagusiak oso feminizatutakoak direlako, etxeko langileak eta klinika txikietako langileak, hain zuzen. Hobekuntza hau erabat loturik dago azken urteetako greba ziklo indartsuarekin.
2. ELAk sektore mailako 15 hitzarmen sinatu ditu eta horiek dira, hain zuzen, eduki onenak dauzkatenak. Soldata altuenak ELAk sinatutako hitzarmenetakoak dira, baina beste sindikatuekin aurreko urteetan genuen diferentzia murriztu egin da inflazioa baretu den neurrian, ondorioz, ELAk hitzarmenetan gutxieneko soldata igoera finko bat ezartzea garrantzitsua da. Era berean ELAk sinatutako hitzarmen sektorial guztietan aplikaziorako bermeak hitzartu dira, %86an eros-ahalmena erabat bermatu da eta hitzarmenen %70ean prekaritatea murrizteko neurri eraginkorrak adostu dira. Parametro guztietan ELAk sinatutako hitzarmenak nabarmen hobeak izan dira.
3. Sektore mailan grebak egin dira soilik ELAk gehiengo nabarmena izan duen sektoreetan eta ELA da sektore hitzarmenak dinamizatzeko aktibo nagusia.

4. Enpresa mailan ELAk 225 hitzarmen sinatu zituen 2024. Bai sektoreen zein lantokien kasuan hitzarmen kopuru gehiago sinatuta ere langile gutxiagori eragin die. Era berean, proportzioan emakume gehiagori eragin diete ELAk sinatutako hitzarmenek eta, hala ere, ez dugu modu esanguratsuan murriztu hitzarmenen estalduran emakumeek pairatzen duten arrakala.
5. Lanaldi murrizketa agendan indartzen ari da eta gutxieneko soldatari begira aipatzekoa da 19.600 eurotako gutxieneko soldata modu orokorrean hitzarmenetan gaitua izan dela.

## 2024an ARGITARATU DIREN EDO 2024an SINATU DIREN HITZARMENAK

| ARABA                                 | ELA ORDEZ | SINATZAILEAK |     |      |     | LANGILE KOPURUA | EMAKUMEAK | GREBA EGINA? | 2023 IGOERA |
|---------------------------------------|-----------|--------------|-----|------|-----|-----------------|-----------|--------------|-------------|
|                                       |           | ELA          | LAB | CCOO | UGT |                 |           |              |             |
| Salgaien garraioa                     | %33       | EZ           | EZ  | EZ   | BAI | 1832            | 387       | BAI          | 3,1         |
| Ez-gaitasuna duten pertsonen artapena | %59       | BAI          | BAI | BAI  | EZ  | 109             | 81        | EZ           | 4,1         |
| Elikagaien merkataritza               | %30       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 2167            | 1369      | EZ           | 3,5         |
| Ehungintzaren merkataritza            | %90       | BAI          | EZ  | EZ   | EZ  | 801             | 709       | BAI          | 4,2         |
| Aisialdia                             | %40       | BAI          | BAI | BAI  | EZ  | 300             | 200       | BAI          | 3,1         |
| Gozogintza                            | %0        | EZ           | EZ  | BAI  | EZ  | 227             | 101       | EZ           | 3           |
| Eraikuntza                            | %26       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 2515            | 330       | EZ           | 2           |

| BIZKAIA                                | ELA ORDEZ | SINATZAILEAK |     |      |     | LANGILE KOPURUA | EMAKUMEAK | GREBA EGINA? | 2023 IGOERA |
|--|-----------|--------------|-----|------|-----|-----------------|-----------|--------------|-------------|
|  |           | ELA          | LAB | CCOO | UGT |                 |           |              |             |
| Gasolindegia                           | %25       | EZ           | EZ  | BAI  | EZ  | 750             | 450       | EZ           | 2           |
| Elikagaien merkataritza                | %38       | BAI          | EZ  | BAI  | BAI | 4769            | 3517      | EZ           | 3,1         |
| Gozogintza                             | %39       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 517             | 215       | EZ           | 3,1         |
| Fruten biltegiatzea                    | %90       | BAI          | EZ  | EZ   | BAI | 398             | 201       | BAI          | 3,1         |
| Gozotegiak eta pasteleriak             | %39       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 517             | 215       | EZ           | 5,6         |
| Zapata eta larrugintzaren merkataritza | %54       | BAI          | EZ  | EZ   | EZ  | 1000            | 700       | BAI          | 19,3        |
| Kirol kudeaketa                        | %49       | EZ           | BAI | BAI  | BAI | 2000            | 1000      | BAI          | 2,7         |
| Esku-Hartze Soziala                    | %40       | EZ           | BAI | BAI  | EZ  | 3500            | 2450      | BAI          | 4           |

| GIPUZKOA               | ELA ORDEZ | SINATZAILEAK |     |      |     | LANGILE KOPURUA | EMAKUMEAK | GREBA EGINA? | 2023 IGOERA |
|------------------------|-----------|--------------|-----|------|-----|-----------------|-----------|--------------|-------------|
|                        |           | ELA          | LAB | CCOO | UGT |                 |           |              |             |
| Liburutegiak           | %20       | EZ           | BAI | EZ   | EZ  | 98              | 74        | EZ           | 4,05        |
| Esku-hartze Soziala    | %45       | EZ           | BAI | BAI  | EZ  | 2000            | 1600      | EZ           | 5,2         |
| Kale Garbiketa         | %60       | BAI          | EZ  | BAI  | BAI | 1329            | 300       | EZ           | 3,9         |
| Garbikuntza            | %55       | BAI          | EZ  | EZ   | EZ  | 6908            | 5283      | BAI          | 3           |
| Okindegiak             | %45       | BAI          | EZ  | EZ   | BAI | 950             | 500       | EZ           | 3,1         |
| OTA                    | %40       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 100             | 50        | BAI          | 4           |
| Bidaiarien garraioa    | %30       | EZ           | BAI | BAI  | BAI | 1495            | 400       | BAI          | 3,1         |
| Metalaren merkataritza | %59       | BAI          | BAI | BAI  | BAI | 6822            | 2402      | EZ           | 3,1         |
| Sorosleak              | %86       | BAI          | BAI | BAI  | EZ  | 195             | 45        | ez           | 2,78        |
| Egurgintza             | %25       | EZ           | BAI | BAI  | EZ  | 918             | 167       | ez           | 3,1         |

| EAE                    | ELA ORDEZ | SINATZAILEAK |     |      |     | LANGILE KOPURUA | EMAKUMEAK | GREBA EGINA? | 2023 IGOERA |
|------------------------|-----------|--------------|-----|------|-----|-----------------|-----------|--------------|-------------|
|                        |           | ELA          | LAB | CCOO | UGT |                 |           |              |             |
| Osakidetza Garbikuntza | %40       | EZ           | BAI | BAI  | BAI | 2570            | 2124      | BAI          | 2,5         |
| Anbulantziak           | %40       | BAI          | EZ  | BAI  | BAI | 1800            | 600       | BAI          | 3,5         |

| NAFARROA               | ELA ORDEZ | SINATZAILEAK |     |      |     | LANGILE KOPURUA | EMAKUMEAK | GREBA EGINA? | 2023 IGOERA |
|------------------------|-----------|--------------|-----|------|-----|-----------------|-----------|--------------|-------------|
|                        |           | ELA          | LAB | CCOO | UGT |                 |           |              |             |
| Agropekuario           | %15       | EZ           | BAI | BAI  | BAI | 500             | 250       | EZ           | 3,5         |
| Bulegoak               | %23       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 2500            | 1250      | BAI          | 4           |
| Aisialdia              | %25       | EZ           | EZ  | BAI  | EZ  | 600             | 400       | EZ           | 3           |
| Optiken merkataritza   | %50       | BAI          | BAI | EZ   | BAI | 400             | 300       | EZ           | 3,1         |
| Metalaren merkataritza | %36       | EZ           | EZ  | BAI  | BAI | 1000            | 500       | EZ           | 3           |
| Ehungintza             | %33       | EZ           | EZ  | BAI  | EZ  | 750             | 600       | EZ           | 3           |
| Elikagaien industria   | %40       | BAI          | EZ  | EZ   | BAI | 1050            | 350       | EZ           | 3,3         |
| Garbikuntza            | %25       | EZ           | BAI | bai  | EZ  | 6400            | 5300      | EZ           | 4,1         |
| Egurgintza             | %35       | BAI          | BAI | bai  | BAI | 900             | 75        | EZ           | 2,9         |





[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**